

Santa Marian egingo da, Teologia Fakultateaz gain, **Nizeako Kontzilioari buruzko Nazioarteko Biltzarra**



Apirilaren 9an eta 10ean, Concilium Nicaenum I (325) Kongresua egingo da Gasteizen, Nizeako Kontzilioaren egun haiek sakontzeko eta modu zientifiko, zorrotz eta historikoan zer izan zen aztertzeko. Katedralean egingo da bilera horietako bat.

Aurten, 2025ean, 1700 urte beteko dira topaketa ekumeniko garrantzitsu hori egin zenetik. Topaketa hartan, besteak beste, Kristoren jainkotasuna nabarmendu zuten, Kredoa definitu zen –gaur egun mantentzen dena–, eta Pazkoa ospatzeko data ezarri zen.

Teologia Fakultatean ez ezik, Santa Marian ere egingo dira topaketa batzuk, eta horietan Lurraldeko, Estatuko eta Europako hainbat unibertsitatetako eliz eta irakasle ospetsuek parte hartuko dute.

Zehazki, apirilaren 9an, asteazkenean, “Eliza Ortodoxoak ikusitako Nizeako Kontzilioa” komunikazioa jorratuko da

katedralean, Mtr. Kyrillos Katerelosen eskutik, Krini (Çresme) hiriko apezpiku kristau ortodoxo ekialdetarra eta Maltako exarka eta Atenasko Unibertsitate Nazional eta Capodistriakoko irakaslea. Jarraian, ospakizun ekumenikoa egingo da, eta, ondoren, katedrala bisitatuko dute biltzarrerera bertaraturakoek.

INFORMAZIO GEHIAGO:



Biltzarrerako izen-emateak [esteka honetan](#)
Biltzarrari buruzko programa [esteka honetan](#)
Katedralera bisita: apirilaren 9an, 19:00etan.
Topagunea: Santa Maria plaza. **Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea**



18.000 pertsona baino gehiagok bisitatu zuten katedrala **UMBRA Light Festival** jaialdian

Oso positiboa. Horrela kalifika daiteke **UMBRA Light Festival**ek Santa Marian izandako balantzea, 18000 bisitari baino gehiago erakarri baitzituen. Otsailaren 14tik 16ra katedralean ikusteko jarritako bi proposamenez gozatu ahal izan zuen publikoak.

Oraingo honetan, jaialdiaren hiru egunetan, argi-artearen proiektu protagonistak hauek izan dira: **Juan Gomez-Cornejos**en **Bake-kanpaiak** –hiriko beste bi kanpandorre enblematikoekin partekatuta– eta **Jou Serraren Range in between**.





FUNDAZIOA EUSKADI FAMILIAN III. JARDUNALDIAN

Otsailaren 26an, asteazkena, Basquetourrek antolatutako Euskadi Familian III. Jardunaldian izan ginen, Santurtziko Serantes Kultur Aretoan.

Jardunaldia oso interesgarria izan zen. Euskal turismoaren sektoreko ordezkaritza zabalaz izateaz gain, aukera ederra izan zen hitzaldi aberasgarriak entzuteko eta familien aniztasunari

eta gaur egun dituzten erronkei buruz sakontzen lagundu zigun eztabaida batean parte hartzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Basquetourri era horretako topaketetan parte hartzeko gurekin gogoratzen jarraitzeagatik; era berean, azpimarratu nahi dugu guk ere haiekin esku hartzen jarraitu nahi dugula.



Martxoan zehar, 6. Ikasturteari hasiera eman go diogu Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa barruan, Eusko Jaurlaritzako Turismoaren Euskal Agentzia den Basquetourren eskutik

Prestatzen jarraituko dugu, turismoaren barruko gure lorpenak eta etorkizuneko gure erronkak partekatzen, baina beti printzipio hauei jarraiki:

- Turista eta bizilaguna errespetatuko ditut. Haren ohiturak eta tradizioak. Haren gozamena eta atsedena.
- Aniztasunean berdintasuna defendatuko dut. Zarena zarena, zaren bezalakoa zarena.
- Gure ingurunea, paisaiak eta baliabide naturalak babestuko ditut.
- Tokiko kultura mantenduko eta kontsumituko dut eta horrekin gozatuko dut.
- Unescok Gizateriaren Kultura Ondare gisa aitortutako baliabide turistikoak zainduko ditut.
- Sektore turistikoa eta bertako profesionalak zainduko ditut.

KATEDRALEAN SEGURTASUNA BERMATZEKO SIMULAKROAK

OTSAILAREN 18AN, ASTEARTEA, LARRIALDI-SIMULAKROA EGIN GENUEN SANTA MARIA KATEDRALEAN, ARRISKU HANDIKO EGOEREN AURREAN LANGILEEK NOLA ERANTZUNGO LUKETEN PROBATZEKO

Aurten, larrialdi-egoera bikoitza sartzea erabaki dugu. Alde batetik, istripua izandako pertsona bat gurgil-aulkian atera beharra zegoen; eta, bestetik, eraikinaren irteera nagusitik gertu sute txiki bat zegoenez, beste urteetan baino zailagoa zen ebakuazioa egitea.

Simulakroa hasi zenetik, bisitetako langileak modu eraginkorrean koordinatzen hasi ziren. Pertsona batek orkatila bihurritu zuen eskailera kiribil batzuk jaistean, eta zauritu hori berehala artatu eta gurgil-aulki batean eraman behar zen. Gurgil-aulkia zeladore batek ekarri zuen bisitarien zentrotik, mina hartutako pertsona hori handik ateratzeko. Bitartean, sarrera nagusitik gertu zegoen sua berehala zabaltzen ari zenez, gidariek eta zeladoreek bertaratuakoen segurtasunari buruzko erabakiak azkar hartu behar zituzten, hori guztia bisitarien zentrotik koordinatuta.

Gure auto-babeserako planean agertzen den moduan, urtero egiten ditugu

simulakroak, gure langileak larrialdi baten aurrean prest egon daitezen eta katedralaren barruan dauden pertsona guztien segurtasuna bermatze aldera benetako egoera baten aurrean.

Simulakroa oso ondo atera zen; beraz, esan dezakegu katedralera etortzen zaretenean gerta daitekeen edozein larrialdiren aurrean langile proaktiboak izango dituzuela. Hala ere, nahiago dugu horrelakorik egiaztatu beharrik ez izatea.



JARRAI GAITZAKEZU: